



## 16 plaza gehiago Arangoiti egoitzan

16 nuevas plazas en Arangoiti para mejorar la atención a personas de edad

### AURKIBIDEA | ÍNDICE

#### ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 ▸ Zahartze aktiboa: etorkizuneko desafio nagusia
  - *Iniciativas para mejorar el bienestar de las personas de edad*
  - Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako aukerak areagotuz
  - Uztailean Erauskin plazako lanen hasiera
  - *Trabajos de asfaltado en verano*

#### BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 ▸ San Joan bezpera
  - Kontzertuak
  - Euskaraldiaren aurkezpena
  - BertsoTransaioa
  - Igartza-LGTBI eguna
  - Pilota jaialdiak
  - III. Irantzu oroimenezkoa
  - Ondo ibili, ondo izan
  - Institutukoei harrera
  - Auzoetako jaiak
  - XCI. Loinatz klasika

#### BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 ▸ Beasainen erositak denok irabazten dugu

#### BEASAINDARRENTZAKO INFORMAZIOA

## GUTUNA



**Malu Vallés**

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia

### ZAHARTZE AKTIBOA: ETORKIZUNEKO DESAFIO NAGUSIA

Iraultza demografiko baten aurrean gaude. Egun, Gipuzkoan, biztanleriaren %35ek 55 urte edo gehiago ditu eta aurreikuspenen arabera, 2031n, zifra hori %46,5ekoa izango da.

Erronka horren aurrean, prest egon behar dugu eta ezinbestekoa da prebentzioari garrantzia ematea eta estrategia berriak lantzea, herritarren ongizatea bermatzeko.

Arazo honi aurre hartzeko jada Beasainen eta baita Foru Aldundian ere, lanean hasiak gaude eta legealdi honetan proiektu eta egitasmo ezberdinak abiarazi eta sustatu ditugu.

Beasainen, esaterako, Goiz Alzheimer eta Goiz Zaindu proiektu aitzindariak jarri ditugu martxan gaixotasunaren atzemate goiztiarrerako eta prebentzioan esku hartzeko. Beasain Lagunkoia egitasmoa ere abiarazi dugu adineko pertsonen ikuspuntutik herria eraikitzen jarraitzeko, ohitura osasuntsuak sustatzeko kanpainak eta "ondo ibili, ondo izan" irteerak ere egiten dira, kirol orientazio zerbitzua ere sortu da eta aurten zahartze aktiboari lotutako beste proiektu berritzaile bat ere jarriko da martxan.

Azkenik, Arangoitiko egoitzan Aldundiak 16 plaza gehiago hitzartzea ere lortu dugu, hainbat bilera eta plazak egokitzeko inbertsioa egin ostean.

Beraz, etorkizuneko erronkei aurre egiteko eta herritarren beharrei erantzuteko lanean gabiltza eta lanean jarraituko dugu, ongizate alorrean, zein gainerako alorretan ere.

### **Envejecimiento activo y saludable: reto del presente y del futuro**

*Estamos ante una sociedad cada vez más mayor y en 2031 el colectivo de personas de edad alcanzará casi la mitad de la población. Por ello, desde las instituciones debemos promover programas y servicios que impulsen y garanticen el envejecimiento activo y saludable de las personas, haciendo especial hincapié en la prevención. Y así lo hemos hecho en Beasain con proyectos como Goiz Alzheimer, Beasain Lagunkoia... y así lo seguiremos haciendo para hacer frente, junto a la ciudadanía, a los retos del futuro.*

## INICIATIVAS PARA MEJORAR EL BIENESTAR DE LAS PERSONAS DE EDAD



*Muchos agentes y grupos de Beasain como Asmube, Cáritas, Gueske, Aranealde o Nagusilan, están participando activamente en iniciativas como Beasain Lagunkoia y Ondo ibili ondo izan, promovidas por el Ayuntamiento, con el objeto de mejorar la calidad de vida y la salud física y mental de las personas mayores.*

*Dentro de la iniciativa Beasain Lagunkoia, se han analizado diferentes aspectos a mejorar en el municipio desde la perspectiva de las personas de edad. Se han impartido talleres para promover un comercio amigable y así adecuar el comercio local a las necesidades de las personas mayores de Beasain.*

*Las salidas del programa "Ondo ibili, ondo izan" impulsan la actividad física entre las personas mayores; pero además de eso y sobre todo pretenden ser un punto de encuentro para que las personas de edad puedan compartir su tiempo entre amigos y amigas.*

*También en esta legislatura se han impulsado novedosos proyectos como el de Goiz Alzheimer para la detección precoz de esta enfermedad o Goiz Zaindu para la prevención del Alzheimer mediante hábitos saludables.*

*Por último, este mismo año se pondrá en marcha un nuevo proyecto para prevenir mediante la práctica deportiva el deterioro físico y mental de las personas por medio de la estimulación sensorial y unos hábitos saludables.*

**Asko dira zahartze aktiboa eta herritarren artean ohitura osasuntsuak sustatzeko helburuarekin abiarazitako proiektuak. Adineko pertsonen kirola praktikatzeko makinak jarri dira Barandiaran parkean eta Igartza inguruan; eragile eta boluntarioen laguntzarekin eta haiek egindako ekarpenari esker Ondo ibili ondo izan edota Beasain Lagunkoia egitasmoak jada errotuta daude Beasainen. Goiz Alzheimer proiektuak ere egin du bere bidea; hainbat herritarrek parte hartu dute Alzheimer gaixotasunaren antzemate goiztiarra helburu duen proiektu honetan eta aurten Goiz Zaindu prebentzio programa jarri da martxan eta laster proiektu berria abiaraziko da helburu beraren baitan.**



# MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKO PERTSONEN AUKERAK AREAGOTUZ



Legealdi honen hasieratik egindako lanari esker, Beasaingo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak 16 plaza gehiago hitzartzea lortu du Arangoitiko egoitzan. Plaza berriak orokorrak izango dira, eta beraz, guztira, 92 egoiliarrentzako espazioa egongo da egoitzan.

16 plaza horiek hitzartzeko "hamaika" bilera egin ditu gobernuek Aldundiko ordezkariekin eta inbertsioak ere egin dira beharrezkoak diren berrikuntza eta egokitzapenak egiteko eta logelak prestatzeko. Izan ere, pertsonen ongizatea bermatu eta hobetzea udal

goburuaren helburu estrategikoetako bat da eta Arangoitiko plaza berrien lorpena, beraz, zahartze aktibo eta osasuntsuaren alde legealdi honetan egin diren hainbat eta hainbat egitasmoen baitan kokatu behar da.

## Las 16 nuevas plazas de Arangoiti fruto del trabajo previo realizado

*La Diputación Foral de Gipuzkoa concertará en los próximos meses las 16 nuevas plazas de Arangoiti. Esta concertación se debe, en gran medida, al trabajo previo realizado por el equipo de gobierno, ya que se han realizado múltiples reuniones e inversiones para adecuar el espacio a las nuevas personas residentes. Así las cosas, este logro se enmarca dentro de las prioridades estratégicas del actual gobierno en relación al bienestar de las personas y a un envejecimiento activo y saludable.*



## Uztailean Erauskin plazako lanen hasiera

Uztailean hasiko dira Erauskin oinezko bihurtzeko lanak, besteak beste, eremua irisgarriagoa, seguruagoa eta jasangarria izan dadin lortzeko eta bertako merkataritzari bultzada emateko, oinezkoei lehentasuna emanez.

Plaza erabat berrituko da eta oholdtza itxurako plataforma bat ezarriko da. Abangoardiako hiri-altzariak jarriko dira eta aisialdirako eta herritarrak elkartzeko guneak sustatuko dira.



## Trabajos de asfaltado en verano

Entre julio y agosto, aprovechando la época estival, se asfaltarán las siguientes calles del municipio: Avda. de Navarra 27-45 (desde la plaza Barrendain hasta el cruce de la calle Mendeurren); Igartza Oleta 8-12, Erauskin 8-30 y parte de la plaza, cruce entre la calle Zelaeta y Oriamendi (debido a que en el nº34 se realizarán varios trabajos en el servicio de saneamiento) y entradas de garajes: Urbialde, avda. de Navarra, Igartza y Peategi. El presupuesto total es de 139.346 euros (IVA incluido).

# EKAINEAN BEASAINEN



San Joan bezpera



Musika Eskolako ikasturte amaierako kontzertuak



Euskaraldiaren aurkezpena



BertoTransaioa



Igarza-LGTBI harrotasunaren eguna



Ruper Ordorrika



Anari



Argazkia: Carlos Mediavilla

Pilota jaialdia



Argazkia: Carlos Mediavilla



Argazkia: Javi Urola

III. Irantzu omenezkoa



Beasain Institutukoeri harrera



Ondo ibili, ondo izan ikasturte amaiera



Zapatarri kaleko jaiak



XCI. Loinatz klasika-txirindularitza



Arriarango jaiak



Ezkiaga auzoko San Pedroak

# BEASAINEN EROSITA

**Merkataritzarik gabe, herririk ez**  
**¿Te imaginarías un Beasain sin comercio?**



**Bareak Merkatarik Elkarteak** sentsibilizazio eta promozio kanpaina egin du herritarrek tokiko merkataritzak duen garrantziaz kontzientzia har dezan. Izan ere, Beasaingo merkataritzak eta ostalaritzak ematen dio bizia herriari eta horiek gabe gure kaleak hutsik geratuko lirateke.

Joan den urtean ere erakuslehoak beltzez estali zituzten,

merkataritzak herrian duen garrantzia ikusarazteko eta aurten berriz "NI NAIZ BEASAIN" lelopean egindako kanpainaren bitartez, herritarrei zuzeneko deia egin diete. Beasain guztiok egiten dugula jakinarazteko eta sentiarazteko.

## NI NAIZ BEASAIN, ETA ZU?

### Campana para la puesta en valor del pequeño comercio

Desde Bareak, la Asociación de Comerciantes de Beasain, se ha impulsado esta campaña de sensibilización que ha tenido como objeto poner en valor las características y los valores del pequeño comercio frente a las grandes superficies o internet: amabilidad, trato personalizado y responsabilidad social, entre otros.

Y es que el comercio local vive una situación compleja y difícil debido a los cambios en las costumbres de compra de los consumidores y a causa de las grandes superficies y la venta online, contra la cual, casi les es imposible competir.

Por ello, resulta totalmente necesario concienciar a las y los beasaindarras sobre la importancia que tiene comprar en los comercios locales, ya que son los que mantienen vivas las calles de Beasain, al mismo tiempo que crean empleo.

En total han participado 132 establecimientos y en la campaña se han sorteado 30 cheques de compra de 30 euros entre las personas que han realizado sus compras en el comercio local con el objeto de premiar la fidelidad de los clientes.

# DENOK IRABAZTEN DUGU



**APOYA AL  
PEQUEÑO  
COMERCIO**

## KALITATEZKO ESTABLEZIMENDUAK BEASAINEN



### Singular dendak zigilua

Gipuzkoako Merkatarien Federazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin tokiko merkataritza sustatzeko eta indartzeko abiarazitako egitasmoa da. Beasaingo 6 establezimendu ari dira egitasmoan parte hartzen eta jada hiruk merkataritzaren profesionalizazioa, bereizketa eta posizionamendu ona aurkitzea helburu duen kalitate ziurtagiria jaso dute

### Merkataritza paisaia euskalduna

Tokiko saltokien paisaia euskalduntzeko helburuarekin, Udalak, diru-laguntzak eskaini zituen joan den urtean herriko denda eta tabernetako errotuluetan, karteletan, web-orrietan euskararen erabilera sustatzeko.

Aurten, harategietako eta arrandegietako produktuen kartelak euskaratzeari ekin zaio eta dagoeneko herritarrek produktuen izenak euskaraz aurki ditzakete Beasaingo harategietan eta arrandegietan.



## BEHERAPEN AZOKA FERIA DE REBAJAS

**Uztailak 19-20 Julio**

**Zatoz!!!!**

<p><b>UZTAILA</b> julio</p> <p><b>12</b> 19:30</p> <p>Jon Barreros Urko Ruiz de Apodaka Yon Labayen Fermin Etxeberria</p>	<p>ZUBIMUZU PLAZAN <b>Star Blues</b></p> 	<p><b>URRIA</b> octubre</p> <p><b>20</b> 19:00</p> <p>Loinatz Abesbatza Zuz. Jon Aizpuru</p>	<p>SAN MARTINGO BASELIZAN</p>  	<p><b>AZAROA</b> noviembre</p> <p><b>17 eta 18</b></p>	<p>IGARTZAKO JAUREGIAN <b>Zuzeneko emanaldi irekiak</b></p>  <p>musikene</p>
<p><b>19</b> 19:30</p>	<p>ZUBIMUZU PLAZAN <b>Manez eta Kobreak</b></p> 	<p><b>Kalakan</b></p> <p><b>27</b> Ik. Prog.</p> 	<p>BERNEDOENEAN <b>Aitor Etxebarria</b></p> 	<p><b>ABENDUA</b> diciembre</p> <p><b>2</b> 19:00</p>  <p>Enrike Solinis</p>	<p>IGARTZAKO JAUREGIAN <b>Euskal Barrokensemble</b> - El Amor Brujo -</p> 
<p><b>ABUZTUA</b> agosto</p> <p><b>2</b> 19:30</p>	<p>BIDELUZE PLAZAN <b>Brigantya</b></p> 	<p><b>31</b> 19:00</p>	<p>SAN MARTINGO BASELIZAN <b>The Salt Lake Vocal Artists</b> - Estatu Batuak -</p> 	<p><b>16</b> 20:00</p> <p><b>Loinatz abesbatza</b> Beasain</p> 	<p>ANDRE MARI ZERURATUAREN PARROKIAN <b>Loinatz Abesbatza</b> (Zuz. J. Aizpuru) (Zuz. X. Sarasola) <b>Narama Abesbatza</b></p>  
<p><b>IRAILA</b> septiembre</p> <p><b>28</b> 22:00</p>	<p>IGARTZAKO JAUREGIAN <b>Mielotxin</b></p> 	<p><b>50</b> TOLOSAKO ABESBATZA LEHIAKETA</p> 			

## DATUEKIN JOLASEAN

Irakurri, gozatu eta oparitu kanpainaren balorazioa *Valoración campaña Irakurri, gozatu eta oparitu*






	2017	2018
Euskarazko liburuen mailegu kopurua <i>Libros prestados en euskera</i>	541	611
Maileguan hartutako liburuen kopuru orokorra <i>Total libros prestados</i>	1364	1468
Kanpainan parte hartu duten pertsonak <i>Personas que han participado en la campaña</i>	59	74
Kanpainaz baliatuta herriko liburu dendetan erosketak egin dituztenak <i>Personas que han realizado sus compras en las tiendas locales aprovechando la campaña</i>	35	49

## Biblioteka zerbitzua kanpoko igerilekuan *Servicio de biblioteca en las piscinas exteriores*

**Asteleheneetik ostiralera 16:15etik 19:45era**  
De lunes a viernes de 16:15 a 19:45  
**Igerilekuan kokatuta dagoen etxolan**  
Caseta situada en el jardín de las piscinas  
**Zerbitzuak: liburuen maileguak, kontsultak eta aldizkari eta egunkarien irakurketa**  
Servicios: préstamo de libros, consultas y lectura de revistas o periódicos



## LOTURAK ENLACES

-  **Antzizar kiroldedia**  
[www.antzizar.net](http://www.antzizar.net)
-  **Udal Euskaltegia**  
[www.beasain.eus/euskaltegia](http://www.beasain.eus/euskaltegia)
-  **kzGunea**  
[www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus)
-  **Igartza monumentu multzoa**  
[www.igartza.eus](http://www.igartza.eus)
-  **Musika Eskola**  
[www.beasaingomusikaeskola.eus](http://www.beasaingomusikaeskola.eus)



Lege gordailua SS 403-2016